

# baieike



## Etxebizitzak: S.O.S.

Konponbide zaila duen arazoa.

Oraindik ere BALEIKE!

habele batzuetako urtegarren ondoren, berriro ere zuekin.

Arrauna: hamaika oztopo baina aurrera



Belen  
Golmaio



# txotx!

baleike

**1** oi. ale honen atea irekitzeko Baleikeko irakurle fin eta zintzoari zor dizkiogun azalpenak eman eta hemendik aurrerako asmoak zein diren argituko dizkizuegu, besteak beste.

Ze berri atalean **anbulategiaren eta turismo bulego** berriaren ingurukoak ezagutuko ditugu, aurtengo **Zumaia Sariak** zeinentzat izan diren jakitearekin batera.



Ondoren **Belen Golmaio**ekin izandako elkarrizketa interesgarriaren eta atseginaren berri izango dugu, beti ere *ur haunditan* sartu baino lehen. Hilabete honetako urek **etxebizitz**en mundura eramango gaituzte: babe-

sekoak, tasatuak, Puntanueta, alokairua... bada zer esana eta zer irakurria! Gerorako **Olarru Zopa** goxo-goxoa prestatu dizuegu, **lupi pastelaz, herriko euskaraz, eta ingeneritza genetikoz** egina. Ummm! Gure herrian **euskarak bizi duen egoeraz** ere zerbait esan nahi izan dugu, kalean jasotako iritzien lagun-



tza bikainarekin. Uztaileko izerdiak botatzeko berriz, herrian hainbeste jarraitzen ditugun kirolariekin egon gara, **Gotzon Enbilekin** eta arraun munduan dabiltzanekin. Eta bukatze aldera, **herriko kontu zahar bereziak** ezagutuko ditugu,



kulturari orrazia pasa eta beti ere lagungarri zaigun **agenda** zertan den esango dizuegu. Zuen gustokoa izango ahal da!

## HERRI ALDIZKARIA

Juan Belmonte, 29 behea  
tel.: 943 86 15 45  
faxa: 943 86 17 42  
email:  
baleike@topagunea.com

## Argitaratzailea

BALEIKE KULTUR ELKARTEA

## Administrazio batzardea

Esther Etxeberria  
Xabier Azkue

## Erredakzioa batzardea

Egoitz Lizaso  
Gorka Zabaleta  
Ibon Manterola  
Eneko Dorronsoro

Itxaso Ibarra  
Aitor Manterola

## Koordinatzailea

Aitor Manterola

## Kazetariak

Eneko Dorronsoro  
Ibon Manterola  
Itxaso Ibarra  
Aitor Manterola

## Oikialdean orriaren

arduraduna

Xabier Aizpurua

## Kolaboratzaileak

Miriam Romatet, Xabier  
Aranguren, Jon Maia,  
Jon Sudupe, Esti Esteibar,

Dani Carballo, Inaxio Tolosa,  
Inaxio Manterola, Belen  
Golmaio, Izaga Garzia,  
Koldo Landaluze, Beñat  
Fernandez de Arroyabe,  
Ihintz Linazisoro, Jose  
Manuel Gonzalez  
Aramendi, Egoitz Lizaso,  
Garikoitz Telleria, Natur  
Taldea

## Argazkiak

Baleike

## Diseinua eta maketazioa

Argi Aizpurua

## Hizkuntz zuzenketa

Imanol Azkue eta Baleike

## Publizitatea

943 86 15 45 tel. (Esther)

## Inprimategia

Antza Inprimategia  
(Lasarte-Oria)

## Tirada

3.500 ale

Lege gordailua  
SS-405/94

## ISSN

1136-8594

**Baleikek** ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esan-en eta iritzien erantzukizunik.

# BALEIKE, berriro kalean

MARTXOAN AGUR esan genizuen, baina "laster arte" izango zen itxaropenez. Orain, lau hilabete geroago, hemen gaituzue berriz ere.

Hogei lagun inguru elkartu ginen martxoaren 23an Oxford aretoan (Alondegian) egindako bileran. Aldizkariaren izaera eta bila-kaerari buruz hausnarketa egin genuen eta baita zenbait ondorio atara ere:

- Hamabostekaria izateak ez zuen aurrerapausorik ekarri eta jendeak nahiagoko luke HILABETEKARIA izatea.
- Herrian ahalik eta gehien zabaltzea komeniko litzateke eta horretarako garrantzitsua litzateke DOAN banatzea.
- KULTUR ELKARTE sendo bat bultzatzea oso garrantzitsua da, jende askoren babesa izatea, aldizkaria atara eta beste hainbat proiektu abian jarri ahal izateko.

Gainera, aldizkaria berriz ere lehenbailehen martxan jartzeko ahalegina egin beharra zegoela ikusi genuen, horretarako prest zegoen jendea elkartzen bazen, behintzat. Izan ere, zenbat eta eten handiago izan gero eta zailago izango litzateke lehengo baldintzak eta laguntzak izatea.

Hausnartzeko, aztertze eta eztabaidatzeko balio izan zuen bilera mamitsu harren ondoren, beste bileratxo batzuk etorri ziren, eta bi lantaldetan banatzea erabaki genuen, lana hobeto egin ahal izateko.

Batek, kultur elkartearen ideia landuko zuen: zer egin beharko lukeen, nola funtzionatu...

Beste lan-taldeak, aldizkaria martxan jarri ahal izateko proiektu berria landu beharko zuen, urte bukaera bitartean, hasteko: bideragarritasuna aztertu, itxura eta edukiak zehaztu, jendea lotu...

Eta, azkenean, hementxe duzu aldizkari berria. Izen berarekin, baina ezberdina. Neurritz eta itxuraz diferentea, baina lehen bezala Zumaiako herri-aldizkaria. Jende berria inguratzeko asmoa duena.

Gustatu zaizu? Eman zeure iritzia, ahoz edo idatziz, posta elektronikoz edo arruntez. Zure aholku eta iradokizunak behar ditugu, aurrerantzean hobetzen jarraitu nahiko genuke eta.

## Baleike Kultur Elkarte mamitzen

Lehendik ere juridikoki eratuta zegoen Baleike kultur elkarte, baina orain artean ez zuen elkarte bezala funtzionatzen. Orain eronka horixe da: "benetako" mugimendua eta dinamika sortzea elkartearen inguruan.

Lehen egitekoa herriko kultura eta taldeak aztertzea izan da, hutsuneak eta gabeziak non dauden antzemateko. Lehendik dauden taldeei lagundu eta kultur eskaintza zabal eta duin bat osatzen laguntzea da Baleike kultur elkartearen helburu nagusia.

Garrantzitsua da jendea inplikatzeko, hurbiltzea. Denon artean egin behar dugu lan; bestela, jai daukagu. Parte hartu nahi baduzu jar zaitez gurekin harremanetan.



## Neurritz eta itxuraz diferentea, baina lehen bezala Zumaiako herri-aldizkaria

### Harpidedun al zara?

Orain artean harpideduna izan bazara BAZKIDE EGITEA da proposatzen dizuguna; hau da, urte guztiko harpidedzagatik ordaindu zenuen kopuru hura (30 euro) bazkide-tza-kuotatzat hartzea. Horrela, aldizkaria ateratzeko laguntza emango duzu eta baita beste hainbat proiektu eta jarduera bultzatzeko ere. Bazkide izateko ez duzu ezer berezirik egin beharrik, ezekorik esaten ez badiguzu zuzenean zerrendan sartuko zaitugu eta. Aldizkaria etxean jasotzen jarraituko duzu, noski, eta laster bazkide izateagatik izango dituzun zenbait abantailaren berri emango dizugu: zozketak, materiala merkeago....

Bestela, baja ematea nahiago baduzu, telefonoz edo posta elektronikoz esaguzu eta 24 euro itzuliko dizkizugu. Aldizkaria jasotzeko aukera izango duzu, hala ere, hala esaten badiguzu.

### Ez al zara harpidedun?

Zeren zain zaude? Aldizkaria DOAN banatuko dugu, baina hasiera batean ez da lehen bezala kiosko eta dendetan egongo, eskatu egin beharko diguzu. Zeure datuak eman eta hileroko hileroko etxera bidaliko dizugu, xentimorik kobratu gabe (kanpoan bizi direnei bidalketa-gastuen truke zerbait eskatuko diegu).

Hala ere, aldizkariaren eta elkartearen proiektua benetan bultzatu nahi baduzu, BAZKIDE EGITEA proposatzen dizugu. Horretarako urtean 30 euro ordaindu beharko dituzu, urteko kuotatzat, eta gerora zenbait abantaila ere izango dituzu: zozketak, materiala merkeago...

Harpidedun zein bazkide egiteko, bete ezazu aldizkariarekin banatu dugun orria eta hauetako tokiren batean laga:

- Baleikeko lokala (Juan Belmonte 29)
  - Erribera kaleko Errota
  - Foronda kultur etxea
  - Aizpurua liburu-denda
- Posta elektronikoa edo telefonoaren bidea ere erabil dezakezu (baleike@topagunea.com helbidera idatzita edo 943861545 zenbakira deituta).

# Familia ugariak

Egoitz Lizaso Legarda

EZ BADA KIZUE ere, aurreko urtean Jaurlaritzak familia ugarien (hiru seme-alaba baino gehiagoz osaturiko familiak) aldeko erronka jo zuen eta hainbat abantaila berri jarri zirela martxan jakinarazi zigun Ibarretxe jaunak eskutitz baten bidez. Honela, "Familia Ugarietzako Gida" bat bidali ziguten. Bertan, orainarteko Familia Ugarien Tituluaz gain, jakinarazten da Familia Ugarien Agiri bat sortu dutela eta familia ugari kide guztioi bana igorriko zaiela. Horretaz gain, deskontu berrien berri ematen da, hala nola Euskaltel, Euskotren, ... Non dago kokka? Bada Euskaltel edo beste zenbaiten zerbitzuetan abantaila gozatu nahi bada aurrez aipaturiko Agiri berri horren jabe izan beharra dagoela eta iada urtebete pasa dela eta oraindik ez dugutela agiri hori bidali. Beraz, zenbait abantaila gozatzeko aukerarik ez dugu izan azken urte honetan, nahiz eta Jaurlaritzara urte osoan deika jardun eta arduradunarengatik "laster iritsiko direla" entzun; gaur da eguna oraindik agiri horien berri ez duguna. Hirukide familia ugarien elkargora ere jo dugu eta esan digutenez familia ugari daude egoera berean. Horrenbesteko erronka eta oraindik makina bat familia gaude abantaila gozatu ezinik.

# Bertsotan

Maddi Gallastegi eta Maialen Velarde

Baleikek zutik iraun izan du urte batetik bestera albiste bidez zehatz azalduz zumaiairren ibilera baina tamalez krisialdiak eraman zuen behera zulo beltz sakon batera ta handik ezin atera kostata baina itzuli zaigu berriro gure artera ezer ez da ta ezinezkoa baldin saiatzen bagera

Aldizkari hau sortua zuten amets ederrez beteta bertan sartuaz txiste, komiki eta hainbat ikerketa halako gauzak irakurtzeko edozeinek zuen beta oroitzapenak gordeta ta hamaika gogoeta gaurtik aurrera jarri beharko merezi duen arreta gure Baleike zumaiair denon euskarria degu eta (bis)

## AMETZA

taberna

Santiago auzoa, 4  
tel: 943 143370



## Azkue Autoak

Estazioko kalea, 19  
Tel: 943 861433  
Faxa: 943 861067

## Antonio Etxabe



Gizonezkoen  
erropak

Zumbillo, 4 Tel. 943 861407



Ignacio Zuloaga enparantza Tel. 943 861157



LIBRERIA

Aita-Mari auzategia, 17  
Tel. 943 861569



Itzurun, 1 Tel. 943 143224

# Bigarren Zumaia sariak



Norbait gelditu al da aurten saririk gabe?

EKAINAREN 28AN, San Pedro bezperan, banatu zituzten Zumaia Sariak. Joan den urtean hasi ziren sari horiek ematen, eta aurten ere bi arlotan banatu dituzte sariak. Batetik, kirolean arrakasta edo garaipenak lortu dituztenak, eta bestetik, Zumaia kirol herritarren alde edozein alorretan nabarmendu direnak.

Aurten saritutako kirolariak edo taldeak hauek izan dira:

- Arraunean, Aita Mariko:
- 2001eko traineruko arraunlariak, egindako denboraldi bikainagatik, eta Kontxako estropadetan izateagatik.
- Gazte mailako arraunlariak, trainerilletan Euskadiko txapeldun izateagatik.

- Zesta Puntan, Zumaia Kirol Elkarteko:

- Luis Mari Alberdi, Munduko txapelketa irabazteagatik.
- Iñaki Osa Goikoetxea, banakako Euskadiko txapeldun izateagatik.
- Imanol Lopez eta Unai Korta, klub artekoko Espainiako txapelketa eta Herri artekoa irabazteagatik.
- Piraguetan, Itxasgaineko:
- Oier Aizpurua, Zagreb-en jokaturako Munduko Kopa irabazteagatik.
- Nerea Azpillaga, abiadura proban Espainiako txapela lortzeagatik.
- Maite Amilibia, Euskadiko abiadura probako eta maratoiko txapeldun izateagatik.

- Esther Eizagirre, abiadura probak Euskadiko txapelketa irabazteagatik.
- Aroa Murciano, Espainiako Kopan bigarren postua lortzeagatik.
- Andoni Amilibia, Euskadiko abiadura proba eta maratoia irabazteagatik.
- Haize Galarraga, Euskadiko abiadura proba eta maratoia irabazteagatik.
- Imanol Atorrasagasti, abiaduran Euskadiko txapeldun izateagatik.
- Iñaki Vita, Autonomia arteko txapelketan 3. postua lortzeagatik.
- Eskubaloian, Pulpoko:
- Xabier Agirre eta Iñigo San Martín, Euskadiko selekzioarekin Espainiako txapelketa irabazteagatik.
- Arrantzan, Anadeko:
- Joxe Mari Zendoia eta Jesus Zelai, Euskadiko selekzioarekin Espainiako txapeldun izateagatik.
- Futboleant, Zumaia koto:
- 2. Mailako gazteen taldea, liga irabazi eta igoera lortzeagatik.

Edozein alorretan nabarmendu diren herritar edo talde sarituak, berriaz, hauek izan dira:

- Zumaia Bertso Eskola, azken hogeitau urtetan herriko umeei bertsoan erakusteagatik eta herrian bertso zaletasuna zabaltzeagatik.
- Zumaia Odol Emaila Elkartea, guztiontzat hain beharrezkoa den ekintza egin eta bultzatzeagatik.

**Arkupe**  
Okindegia eta gosariak.

Kale nagusia, 2 Tel. 943 861521

**ad** AUTOS ZUMAIA

Urola plaza 3-5  
Tel: 943 86 14 85

**ATERPE**  
OPARIAK ETA DEKORAZIOA

Erribera kalea, 6  
Telefono: 943 86 53 87  
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

## Turismo bulegoa lekuz aldatu dute

FIELATUAN ZEGOEN egoitza zaharra utzi, eta uztailaren 5etik Kantauri plazan dago bulego berria. Hiru lagun daude lanean, Goreti Aristondo, Alberto Retolaza eta Esti Irureta. Guk bixitatxoa egin genien, eta zenbait gauza kontatu zizkiguten. Hasteko, ez omen dago lokal zaharra eta berriaren arteko konparaziorik, espazioari dagokionez, beluntzat. Hori bai, beldur pixkat bai omen zuten kokalekua dela eta, bistan ez dagoelako, baina jendeak berehala aurkitzen omen du leku berria. Informazio eske joaten zaizkienak toki guztietakoak direla esan ziguten: Europako ia bazter guztietakoak, Estatu Batuetakoak, valentziarrak, madrildarrak...baita Euskal Herrikoak ere, batez ere nafarrak eta bizkaitarrak. Ematen duten informazioa ere azpimarratu nahi izan zuten, Zumaiakoa ez ezik, Euskal Herrikoa eta Espainiakoa ere ematen dutelako. Gai honekin lotuta hauxe nabarmendu zuten: herriko jendeak ere bulegora joateko ohitura hartzea kanpora dihonean; adibidez: Nafarrera joan nahi du zumaiar batek, eta ez daki nora joan. Ba, turismo bulegoek horrelakoetan laguntza emango diote.

Bestelakoan, bulego berriak duen berrikuntzetako bat ikusgai dagoen argazki-erakusketa da, Javier Carballo zumaiararen argazkiekin egindakoa, hain zuzen. Jende asko hurbiltzen da argazkiok ikustera. Uztailaren 5etik uztailaren zora bitartean egongo da ikusgai aipatutako erakusketa.



Turismo bulegoaren ordutegia: Astelehenetik ostiralera: goizez 10-13; arratsaldez 16-20  
Larunbat eta igandean: 9-20

**expert**   
**ELEKTROGAILUAK**

MERTXE AIZPURUA

Etxezarreta, 6 Tel. 943 861078



TV-VIDEO-HIFI  
ELEKTROGAILUAK  
SUKALDE ETA BAINUKO ALTZARIAK  
ERRIBERA, 8 943 861694

EGUZKI  
PUB



Koktel bereziak

Basadi Auzategia, 9-A 2-B



**BASUSTA**  
ERRETEGIA

Patxita Etxezarreta, 25 Tel: 943 862073

**AITA MARI**  
KAFETEGIA

Julio Beobide, 15 Tel. 943 861393 Zumaiak



**ALBAITARITZA**  
KLINIKAK

MIREN SAN SEBASTIAN BARANDIARAN  
DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN  
INAKI GARMENDIA MENDIZABAL

-ALBAITARIAK-

Basadi, 7 behea  
Tel. 943143310  
Tel. mugikorra: 608- 775508

astegunak: 8:30 - 10

Larrialdiak  
- 24 ordu  
- zure etxean

Karmengo Ama, 14  
E-20749 **Arroa** (Gipuzkoa)  
Tel/Fax: +34 943 14 83 06  
e-mail: bakun@euskalnet.net



**Bakun**  
ITZULPEN ETA ARGITALPEN  
ZERBITZUAK S.L



**ALGORRI** TABERNA  
ERRIBERA KALEA 2 - ZUMAIK 943 862543

# Rigakoplak tarta festa

AURREKO BALEIKEko zozketa batean tarta gozo bat tokatu zitzaien Oikiko umeei. Hori dela eta, koplak eta bertso hauek bidali zizkiguten. Oraindik argitaratu gabe zeudenez, zorrak

kitatzea dagokigu, eta hemen dituzue talentuz betetako rigakopla eta bertso hauek. Gozatu Oikialdetik datorren musikaz betetako koplak hauekin.

## KOTE KOTE

Kote, kote, kote, kote  
Oso txintoak zeratela  
Kote, kote, kote, kote  
Eskerrak zuei denori Hei!(Inigo)

I.-Kote, kote, kote, kote  
Juan Luis eskerrik asko zuri  
Kote, kote, kote, kote,  
Biak oso txinto zarete, Hei!

II.-Kote, kote, kote, kote,  
Pastela gozoa zegoen  
Kote, kote, kote, kote,  
Marrazki politena zeukan. Hei!  
(Janire)

I.- Kote, kote, kote, kote,  
tarta erraldoia ekarri  
kote, kote, kote, kote,  
pailasojarri zen jende dena. Hei!

II.- Kote, kote, kote, kote,  
Juan Luis eta Antxoka atzo  
Kote, kote, kote, kote,  
etorri ziren ona biak. Hei!  
(Kistiñe)

Kote, kote, kote, kote,  
Tarta ona lorearekin  
Kote, kote, kote, kote,  
Eskerrik asko laguntxoak. Jei!  
(Idoia)

Kote, kote, kote, kote,  
tarta zuri-zuriarekin  
kote, kote, kote, kote,  
pailasojarri nintzen atzo  
(Ainhoa)

I.-Kote, kote, kote, kote,  
Baleike hilgo ote zaigu  
kote, kote, kote, kote,  
a ze pena ematen digun(Xuban)

II Kote, kote, kote, kote,  
Juan Luisek eta antxokak gauza  
Kote, kote, kote, kote,  
Goxo bat ekarri ziguten (Xuban)

III Kote, kote, kote, kote,  
Tarta goxoaren atzetik  
Kote, kote, kote, kote,  
Aitona zaharra korrika (Xuban)

## DOINUA: AMA BEGIRA ZAZU

Tarta ekarri zuten  
jendeakjateko  
mozkortuta bezala  
geratu ginen gu. (Ainhoa)

## OLERKIAK

1.- Tarta erraldoia  
jan genuen.  
Bapo Oikia guztiak!

2.-Eskerrik asko  
etortzeagatik  
eta tarta ederra  
ekartzeagatik.(Kistiñe)

## ZORTZIKO TXIKIAN

I.-Tarta erraldoia zen  
marrazki ta guzi  
holakorik ez nuen  
sekula ikusi

Juan Luis eta Antxokak  
ezin zuten kasi  
opari bikain hori  
ez genun merezi

II.- Goizean jan genuen  
hamaiketako  
luxuskua zen hura  
ez nolana hikoia  
Arratsaldean berriz  
A ze tripakoa!  
Eskolako guztiak  
jan genun nahikoa.

III.- Batzarkideek ere  
jan zuten pusketa,  
postaria jarri zen  
ahoa beteta,  
garbitzailea berriz  
gehioren galdezka  
uste gabean a ze  
nolakoa festa (Feli)



## GIZARTEKINTZA zentru soziala

### KAFETEGIA - JATETXEA

- Eguneko menua
- Plater Konbinatuak
- Kaxuelitak
- Kuadrillentzako afariak

Eusebio Gurrutxaga plaza, z/g Tel. 943 86 17 00

• denontzat irekia



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Gizarte Zerbitzuetarako departamentua

### Ohizko tratamenduez gain:

- Laser bidezko depilazioa
- Mikropigmentazioa
- Tatuajeak

**CORO  
PRIETO**  
Esteticista

Bonifazio Etxegarai plazaboa z/g Tel. 943 861322

## Anbulategi berria egin nahi dute

ORAINGOA TXIKIEGIA gelditu da, eta ez da herritarren behar guztiak betetzeko gauza. Horixe da berria eraikitzeko motiboa, Osakidetzaren arabera, behintzat. Oraingo anbulategia handitzeko proposamena egin zuen Osakidetzak, baina horrek Gernika pasealekuko parkea txikitzea ekarriko zukeenez, Udala ez zetorren bat proposamen horrekin. Orduan, behin erabaki hori hartuta, anbulategi berriarentzat lekua bilatu behar. Eta hori Udalak egin du: kiroldegia eta Basadiko azkenengo etxeen artean dagoen eremua proposatu dio Osakidetzari, festetan barraketako kamioiak uzten dituzten lekua, hain zuzen.

Hau dena Zumaiako Udaleko arkitektoak, Luxiano Pagaegik kontatu digu. Oraindik Osakidetzak proiekturik aurkeztu ez duenez, ez omen dakite lanak noiz hasiko diren. Baina gauza segurua da, anbulategi berria aipatutako lekuan eraikiko dutela. Arkitektuari toki horren egokitasunaz galdetu genion, Paolaldean bizi direnentzat urruti xamar geldituko delako, adibidez. Arkitektoaren arabera, Zumaiako erdigunea poligono alderantz mugituko da Puntanueta aldeko lan guztiak bukatzen dituztenean. Horregatik, anbulategi berriaren kokagunea erdigunean izango da, Luxiano Pagaegiren ustez.



Anbulategi berria Kiroldegi ondoan egingo dute. Zer gertatuko da eraikuntza eder honekin?



Tel. 943 860000

**ERROTA**  
OPIL-OKINDEGIA

**EGOKI**



Erloju  
eta bitxidenda

E. Gurrutxaga plazan

Arantza Aramendi



**EGUZKI**  
G. INMOBILIARIA

Harategi kalea, 15 behea  
943 86 22 65 - 609 46 56 37

**Galdona**



Mendaro marriela, 1 Tel. 943 861117  
943 143346  
Juan Belmonte, 15 Faxe. 943 861330

**GANBARA**


Taberna

Juan Belmonte, 5 Tel. 943 86 10 57

Basadi Auzategia, 10 behea  
Tel. 943 862051



**SUKALDEKO ALTZARIAK**  
**ARMAIRU ENPOTRATUAK**



Auto-konponketak

**ELKAR**

Estazioko kalea Tel. 943 86 02 01



**PEUGEOT**



BELEN GOLMAIO  
EUSKARA TEKNIKARIA

“Eragina izateko  
herriko jendearekin  
batera eginiko lana behar du izan”

*Hogei urte baino gehiago daramatza udaletxean lanean Belen Golmaio.*

*Ez dira gutxi, ez. Gainera, lana eta ikasketak batera egin zituen garai batean. Jardunian aritzeko pertsona oso aproposa.*

**H**IZTEGI ETA liburu artean izaten dugu normalean Belen, gure udaleko Euskara Teknikaria. Oraingoan guregana ekarri dugu, bere lana zein den jakiteko, eta egin berri den SIADECO ikerketaren inguruan berarekin solasean aritzeko.

**–Zer egiten du Filologi Hispanikoan lizentziatutako batek euskara teknikari?**

Lanean ari zarela beti izaten duzu ikasi beharra, egunean egoteko. Talde batek pentsatu genuen euskaraz ikasi behar genuela, izan ere euskaraz betidanik egiten genuen baina ikasketa denak gazteleraz egin genituen. Orduan Zarautzera joan ginen ikastaro bat egitera, eta ni han oso gustura ibili nintzen, agian ikasteko sekulako premia neukalako. Hori amaitu nuenan D titulua ateratzera joan nintzen Donostiara, eta kasualitatez atera egin nuen. Horrek aurrera jarraitzera animatu ninduen, eta Bergaran horren jarraipena edo B maila bat antolatu zen. Bitarte horretan udalak lanpostu honetarako deialdia atera zuen, eta bertan sartu nintzen. Bergarako UNEDeko giroa gustuko nuen, eta B maila hori atera ostean, zerbait ikasi behar nuela pentsatu, eta bertan Euskal Filologiarik ez zegoenez, Hispanikoa egiten hasi nintzen. Eta hola-



xe, denbora-pasa ikasten hasi eta hala-ko baten lizentziatua nintzen. Bitartean ikastaro batzuetan ere parte hartu nuen, eta Hizkuntza normalkuntzarako teknikari titulua atera nuen.

**-Zer egiten du euskara teknikari batek?**

Neuk ez dut neure burua euskara teknikari moduan azaltzen. Ni aspaldi hasi nintzen lanean udaletxean, 79an, eta garai hartan euskara arduraduna eta itzulpenak egiteko lana zen. Harrez gero gauzak asko aldatu dira, eta lanpostuak berak ere badaude diferentzia, ez dauka maila teknikorik, eta niri

beti gehiago gustatu izan zait euskera arduradun bezala edo euskerazko lanak egiten dituen bezala agertzea. Ez dakit oso ziur zer den euskara teknikari izatea, izan ere, gaur egun badaude Eusko Jaur-laritzatik planak, erabilpen-plana, biziberritze-plana eta gehienbat horiek bideratzea izaten da lana. Udaletxe txikietan denetik egin behar izaten da, hizkuntza eskakizunen plangintza martxan jarri zenean neuk jarri nuen, neu ari bainintzen lan horietan. Neu euskera arduradun azaltzen naiz, eginkizun horretan sartzen da itzulpenak egitea, eta hori da neuri gehien gustatzen zaidana.

**-Aipatu duzunez, 79an hasi zinen lanean. Urte hauetan zehar aldaketarik sumatu al duzu?**

Erabatekoa. Garai hartan esan genezake ezer arautu gabe zegoela, harrez gero egin dira plangintzak eta beste lan batzuk. Orduan gauza horiek oso gauza berriak ziren, ez ziren ia landu ere egi-

ten. Gehienbat izaten zen, euskaraz zerbait egiteko gogoia, administrazioa euskalduntzeko, gauza teoriko edo asko finikaturik gabeko lanak egiteko grina.

**-Teknika eta euskara batera ditugu termino honetan. Teknika ez al da ingenieruen kontua? Kontzeptu berria edo.**

Agian bai. Niretzako ere kontzeptu berria da. Batzuek esaten dute, teknika eta ingenieritza alor horretan ikasi dutenak direla teknikari hoberenak euskeran ere. Nik ez dakit zenbateraino egia den, baina ikusi besterik ez dago.

**-Orain arte ez da egon lan horretarako bideratzeko karrerarik edo ikasketarik...**

Egia da. Duela urte batzuk itzulpengintzarako karrera bat ere jarri zuten, hiru urtekoa, baina berehala amaitu zen, ez zuen aurrera biderik izan. Gauza berriak direlako

izango da, ez zegoelako tradizionarik, eta garai hartan gauza berriak izan ziren. Filologia ikasketak ere gerokoak dira, eta nik uste dut inportantea dela horretan trebatzea gero lan egiteko.

**-Askotan esaten da administrazion erabiltzen den euskera astuna izaten dela. Nola moldatzen zara?**

Bai esaten da, egia esan aldrebesa da askotan, baina baita gaztelania ere. Askotan konturatzen bazara, oso zaharra da, eta orduan ohituragatik horrela egiten da. Gaztelaniaz ematen du mundu guztiak dakiela hori, baina askotan guk ere ez dugu jakiten gaztelaniaz zer esaten dugun. Formula antzeko gauza batzuk direla diote ba-

*“Lanean ari zarela beti izaten duzu ikasi beharra, egunean egoteko”*

*“...uste dut premia dagoela hortik puntu batzuk hartu eta zerbait egiten hasteko, bertan parte hartu duen jendearekin harremanetan jarritz.”*



Amaiako plaza z/g Tel. 943 860959

*Gure Txokoa*

• taberna •

*kaxuelita eta pintxo ezberdinak*

Upela plaza, 4 tel: 943 860970

English School **Harvest**

**Ingelesko klaseak adin guztietan**

San Jose, 11 bis Tel. 943 143334

ODONTOLOGIA - PROTESIS DENTIA  
**CLINICA DENTAL ZUMAILA HORTZ KLINIKA**

Plazaleta de los Fueros - Bajc  
Tel. (943) 85 14 74  
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

Gorritu  
Rafael Iraundegi Elgoibai



TXOMIN AGIRRE, z/g  
TEL: 943 865369





tzuek, XVI. mendekoak eta ordutik hona ez da asko berritu. Horrek itzulterakoan azpitik-gorako lana egitea sortzen du eta orduan edozer gauza atera daiteke. Gauza aldrebesak egiten dira, azkenaldi honetan zuzentzen badoa ere. Nik uste dut daukagun gaztelaniazko eredu oso zaharra dela, eta hizkuntzak horren ezberdinak izatean arazo pila bat sortzen dira.

–Orduan igual pedante fama izango duzu, udaletxe alde horretan

Bai, beharbada bai. Ez dakit, hori galdetu nire lankideei.

–Eta zenbat aldiz esan dizute, han orain ere badator gure euskara zuzen-

tzailea.

Bai, baita beste hau ere: "hemen dator euskaltzaindia". Baina bueno, baita "hemen dator Maria Moliner" ere, batzuetan. Baina ez ezergatik, neure bulegoan daudelako hiztegiak, besterik gabe.

–Udaletxean zer moduz egiten dute euskaraz?

Ondo. Hizkuntza eskakizunak beteta dauzkate langileek. Baina hori da teoria, gero kostatzen dena da egunero-egunero erabiltzea eta praktikan jartzea.

–Orain egin berri den SIADEKoren ikerketan sartuz. Zer iruditzen zaizu egin den lana?

*“Lankideek esaten didate: hemen dator euskaltzaindia.”*

Neuri iruditzen zait lan mardula dela, eta ondo egindako lana. Bakarrik ba, urte mordo pila batean egon gara esaten ez daukagula azterketa soziolinguistikorik eginda, ez dakigula zein den herriaren egoera, ze euskera maila erabiltzen den, etab. Orain eginda dago, kosta da lan hori egitea, baina orain neuri kezkatzen nauena da ze erabilera emango diogun horri. Nik uste dut hori bukatzearekin batera hasi behar dugula zerbait egiten. Teoria badaukagu, ezagutzen dugu egoera, baina uste dut premia dagoela hortik puntu batzuk hartu eta zerbait egiten hasteko, bertan parte hartu duen jendearekin harremanetan jarritz.

–Zailtasunik ikusten duzu hori aurrea eramateko?

Ez. Zumaian aurtengo legealdian euskera batzordea egin da. Lehenago hezkuntzak eta euskarak batera funtzionatzen zuten eta aurtengo agintaldian banatu egin ziren. Horrek askoz ere aukera gehiago ematen dizkizu, dedikazio gehiago gauzak egiteko. Baina nik ikusten dudana da: Zumaian batzordeak funtzionatzen du baina batzordeak itxiak dira, eta horrek beti muga izugarria markatzen du. Gauza bat da udalak eta guk intentzioa edukitzea gauza batzuk egiteko, eta gainera ahalbidea. Nik uste dut falta zaiguna dela kaleko jendearekin harremana. Guk herrian dau den elkarte ezberdinekin harremana izatea eguneroko bizitzan, ez diru



- J \* Eguneroko bazkaria
- A \* Pintxo eta bokatak
- T
- E \* Koadrilentzako menu bereziak
- T
- X \* Kazuelitik eta plater konbinatuak
- E
- A

Erribera kalea, 16  
Tel. 943 862517

- Depilaketa (beroa, epela)
- Minik egiten ez duen depilaketa elektrikoa
- Aurpegia edertzeko sendabideak
- Gorputza edertzeko sendabideak
- Lurrindegia
- Solarium-a

laguntzak eskatzean bakarrik, sumatzea elkarren artean konfiantza bada-goela, beraiek beraien asmoak azaldu, guk horiek gauzatzen lagundu, harremana, sumatzea jendeak badaukala gurekin konfiantza.

–Askotan badirudi herria erakunde publikoen atzetik doala euskararen kontuan. Udaletxea, foru aldundia eta Eusko Jaurlaritza ari dira lanean eta euskarak aurrera jarraituko du. Alegia, gizarteak betetzen al du berari dagokion parte Zumaian?

Nik uste dut elkarrekin harreman naturalagoa edo normalagoa edukiko bagenu lan asko egingo genukeela Zumaian. Kultur eta euskara talde asko ez daude, baina euskaltegiak funtzionatzen du, baita Euskal Herrian Euskarazek ere. Batzuetan sortzen dira kezkak eta zerbait egin nahia, eta guk ere sumatzen dugu zerbait egin behar dugula. Gauza bat da instituzio horiek bakarrik egiten duten lana edo ematen duten dirua, baina beste bat da guk herri mailan herritarrekin batera egin genezakeena. Agian guk badugu hor hutsune bat. Ez dakit bakarrik euskara mailan gertatzen den, baina nik sumatzen dut falta hori, harremana herritarrekin elkarrekin lan egiteko.

–Alde horretatik SIADECOK proposatzen duen euskararen alde arituko den gizarte ekimen bat ez egotea, koska handia da ez...

Bai, nik uste dut baietz, eta gainera niri iruditzen zait itxoin gabe hemendik urte betera edo bi urtera, momentuan ia guk sartu beharko genukeela horretan. Saiatzen herri mailan zerbait egiten. Lotura bat mantentzen eta elkarrekin harremana izaten, herriko beharren berri izateko.

–SIADECOK egindako lana hor

dago, baina badira beste gauza batzuk ere. Euskara biziberritzeko plan nagusia, esaterako. Motibaturik ikusten duzu udaletxeko jendea kontu honekin?

Oraintxe egin dugu eskaera hor parte hartzeko. Nik uste dut hasiera bat dela, eta bazela garaia horretan sartzeko. Nik pentsatzen dut badagoela gogoia, eta lehenatasuna ematen bazaio gauzatuko da.

–Beraz euskararen alde lehenatasuna bai eta elkarlana ere bai, ezta?

Niretzako oso inportantea da hori. Gu bakarrik lanean aritzean horren berri izango lukete udaletxekoek edo gure oso gertukoek, baina herriko lana ikusi egingo litzateke eta gehien bat sumatu egingo litzateke. Eragina izateko herriko jendearrekin batera eginiko lana behar du izan.

–Denok gara euskaltzaleak, euskara maite dugu, baina gero ez dugu erabiltzen. Nola azaldu daiteke hori?

Ez da erraza hori esplikatzen, ohiturarik eza erabiltzeko, gaztelania sartuta eta garrantzirik eman ez. Askotan igual nahi dugu, baina ,nonbait, benetan ez dugu nahi. Adibidez, Zumaian ikastetxe denak D ereduak dira, baina joan zaitez ikastetxe atera eta zer entzuten den han denok dakigu, eta baita haurrek irtetea txipa nola aldatzen duten ere. Pentsatzen dut ez daukagula oso barneratuta, hitz egin behar dut, euskara erabili egin behar da, eta umeari bakarrik ez baita senarrari, lagunari... Askotan erabili daiteke, baina ez da erabiltzen.

–Puntu horretan agian gizarte elebiduna izatearen arrazoia sar daiteke. Baina orain esaten da hiztuna hartu behar dela, banaka nola motibatu hizkuntza aldatzeko.

*“Askotan erabili daiteke, baina ez da erabiltzen.”*

Nik ez dut pentsatzen dena bi hizkuntzetan egin behar zaienik denei. Ni, nahiz eta elebitasunaren alde egon, euskaraz dakien bati euskeraz bakarrik hitz egingo nioke. Beste gauza bat da ikasten ari den bati, erraztasun bat ematea eta bietara ematea. Baina elebiduna izateko bi hizkuntzak maila berean egon beharko lukete, denok dakizkigu biak, baina horrela ematen badiegu denei bi eratan eginda, ohituragatik ez du inoiz ikasiko, zeren beti errazena egiten zaiona irakurriko du. Nik uste dut diferentzia bat egin behar dela, eta elebitasuna ondo dago, baina euskara bakarrik erabili daitekeenean erabili egin behar dugu. ■



Euskal Herriko  
buruhausterik  
handienetakoa  
etxebizitzaren gaia da.  
Zumaian ere arazo  
larria dago, eta  
kaltetuenetakoak  
gazteak dira. Diru asko  
mugitzen duen negozio  
honetan interes asko  
dago, batzuk  
agerikoak, besteak  
ezkutukoak.

# BEHARREZKOA duguna NEGOZIO bihurtzen denean



**P**UNTANUETA aldean egingo dituzten etxebizitzak tarteko eta, eta garai honetan etxeen alokairua ohikoa izaten dela kontuan izanda, etxebizitzaren arazoa eguneroko mintzagaia bihurtu da azkenaldian. Guk batera eta bestera jo dugu, eta arazo larri honen inguruko lan hau prestatu dizuegu.

**Puntanueta**

Apirila aldean edo, Udalak informazio- orri batzuk banatu zituen. Bertan, Puntanuetan (Ayra Durex-en atzean) eraiki nahi dituen etxebizitzaren berri ematen zuen. Etxebizitza hauek hiru eratakoak izango direla zehazten zuen: sozialak (seguruenik alokatzeko); babes ofizialekoak; eta tasatutakoak. Oraingoan, ordea, sozialak eraikitzeke egitasmorik ez dago zehaztuta. Horregatik, babes ofizialekotan eta tasatutakoetan bakarrik zegoen izena emateko aukera. Eta jende asko apuntatu zen. Horietatik, Zumaiain 2000. urtea baino lehen erroldatutako guztiak onartu zituzten, hori baitzen baldintza nagusia.

Hurrengo pausua zozketa izan zen, maiatzaren bukaera aldera egin zena. Eta hemen hasi ziren jendearen kezak; batzuei egokiagoa iruditzen zitzaizkien zozketa egin baino lehen diru-sarrerak eta gainontzeko baldintzak aztertu, eta baldintza horiek betetzen zituztenen zerrenda egin ondoren, zozketa egitea. Eta ez, egin den bezala egitea: lehenbizi zozketa, eta gero baldintzak betetzea eskatu.

Kontuk kontu, egin zen zozketa fama-

Denok  
gaude, beraz,  
era batera edo  
bestera, etxebizitzaren  
negozioaren  
kurpilari  
eragiten.



Puntanuetako etxebizitzaren zozketa Maria eta Jose Ikastetxean egin zen.

tu hura, eta ikusmina ikaragarria izan zen, Maria eta Jose ikastetxeko aretoa jendez lepo zegoen eta. Bi zozketa egin zituzten: babes ofizialeko etxebizitzena, batetik, eta tasatutakoena, bestetik. Kontuan izanda, uda bukatu baino lehen babes ofizialeko 120 etxe eraikitzen hasteko asmoa dagoela, lehenbizi zozketa hartako aurreneko 120i tokatu zaie etxe horien jabe izateko aukera. Halere, zozketa zerrendako izen guztiak atera arte egin zuten;

batetik, 120 etxebizitza horien baino gehiago eraikitzeke asmoa dagoelako, eta bestetik, 120 pertsona horietakoren batek edo batzuek baldintzak bete ezean,

zerrendako ordena errespetatuko delako.

Tasatutako 20 etxebizitza eraikitzen hasi nahi dutenez uda amaitu baino lehen, aurreneko 20i tokatu zaie etxe horien jabe izateko aukera. Baina kasu honetan ere, zozketa izen guztiak atera arte egin zuten, beste zozketan aipatutako arrazoi berdinengatik.

Hurrengo pausua haxe izango da: horrelako etxe bat izateko aukera tokatu zaien Eusko Jaurlaritzak eskatzen dituen baldintzak betetzen dituzten ala ez aztertzea. Baldintza horien artean bi dira garrantzitsuenak, eta nahita nahi ez bete beharrekoak:

- 1) Diru-sarrerak: babes ofizialekoetan, 9.015 euro ( 1.500.000 pzta) eta 33.056 euro (5.500.000 pzta) artekoa. **Tasatutakoetan**, 27.046 euro (4.500.000 pzta) eta 39.065 (6.500.000 pzta) artekoa.

- 2) Beste etxebizitza baten jabe ez izatea. Hauetaz aparte, badira zozketan etxe izateko aukera tokatu zaien bete beharreko beste baldintza batzuk. Eta bada

Gazte askok beraien herrietatik alde egiten dute inguruko herriren batera, etxebizitzaren prezioa merkeagoa delako. Zumaiain ere gertatzen da hori.

bat, dezenteko iskanbila sortu duena. Kontua da, 2003ko maiatza bitartean, babes ofizialeko etxea tokatu zaienez 24.000 euro (4 milioi pezeta) jarri behar dituztela, eta tasatutakoa tokatu zaienez, berriz, 66.000 euro (11 milioi pezeta) denbora tarte berean. Bai, 11 milioi. Eta honek jendea sutan jarri du. Ez da harriztekoa, ez. Baina etxebizitzaren arazoaren muina hortxe dago, prezioetan.

Eta prezioak aipatuta, askok uste du babes ofizialeko etxeen balioa garestia dela. Esaterako, Puntanuetakoak 105.177 euro (18 milioi pezeta) kostako dira. Bistakoa denez, gazteek gehienbat, banketxeei lotu behar prezio hori ordaintzeko.

### Udako alokairuak

Prezioekin jarraituz, udako alokairuei erreparatu behar, nahita nahi ez. Jakina da, gure herrira kanpotar asko etortzen dela uda parte honetan, eta uztaila eta abuztua, edo uztaila edo abuztua hemen igerotzen dutenek etxea nahi izaten

## Azken bi urteetan, Gipuzkoan %45 egin du gora merkatu libreko etxebizitzaren prezioak.

dute. Nola lortu etxe hori? Alokatura, noski. Eta prezioak? Beldurtzeko modukoak dira, halajaina!! Abuztuaren etxe bat alokatzea, 250.000 pztza ere kosta daiteke. Bi hitzetan esanda, etxebizitzaren bat hutsik dutenek negozio ederra egiten dute kanpotarren kontura. Hori bai, prezio horietan alokatzen dituzte ordaintzeko jendea dagoelako. Denok gaude, beraz, era batera edo bestera, etxebizitzaren negozioaren kurpilari eragiten.

### Merkatu librea

Hona piramidearen punta distiratsua. Distiratsua, noski, hortik etekinak ateratzen dituztenentzat. Honek neurtzen du ondoen etxebizitzaren negozioa zertan den, eta azkenaldian gora besterik ez du egiten. Datu hau oso adierazgarria da: azken bi urteetan, Gipuzkoan % 45 egin du gora

merkatu libreko etxebizitzaren prezioak. Ondorioz, ordaindu beharreko prezioak ikaragarri altuak dira.

Zumaiako datuei erreparatu besterik ez dago azken datu hori egiaztatzeko. Berrikuntza lanak behar dituen etxe zaharra, gutxienez, 138.200 euro (23 milioi pezeta) ordaindu behar da. Berria baldin bada, aldiz, behetik jota 240.400 eurotik gora (40 milioi). Zenbait kasutan, gainera, kantitate horretatik oso gora egin dezake. Adibidez, Amaia plaza eraikiko dituzten etxeen prezioa 360.600 eurotik gorakoa (60 milioi baino gehiago) izango omen da.



### Arazo larri honen ondorioak

Etxebizitzaren arazoak berarekin dakartzan ondorioak aipatzen hasita, bat baino gehiago direla esan behar dugu, ezer baino lehen; eta negoziotik kanpo daudentzat, noski, ez dira batere onak.

- 1) Banketxeekiko lotura. Gaur egun, ia ezinezkoa da etxebizitza bat erostea krediturik eskatu gabe. Ondorioz, banketxearekin duzun zorrarekin bizi behar.
- 2) Gazte askok beraien herrietatik alde egiten dute inguruko herriren batera, etxebizitzaren prezioa merkeagoa delako. Zumaian ere gertatzen da hori. Gazte dextek Zestuan erosten du etxea gutxi gorabehera hemengo prezioaren erdia dutelako. Orain, gainera, Arrua aldera ere joko du batek baino gehiagok.
- 3) Etxea ordaintzeak ekartzen dituen arazoak. Hau lehengo puntuarekin

lotu daiteke. Etxe berria erosten dutenetako askok arazoak izaten dituzte hilabetearen amaierara behar bezala iristeko.

### Konponbiderik bai al da?

Tristeia da galdera batekin hastea, baina gaur egungo errealtatea ikusita ez dago beste erremediorik. Gustatuko litzaiguke beste zerbait kontatzea, konponbidea

**Etxebizitzarena negozio hutsa bilakatu da, eta negozioa den neurrian, interes asko daude inguruan bueltaka**

berehala etorriko da, ez kezkatu, eta horrelakoak...baina oraingoz zaila dirudi.

Izan ere, etxebizitzarena negozio hutsa bilakatu da, eta negozioa den neurrian interes asko daude inguruan bueltaka. Argi eta garbi esan behar da zenbait jende bapo aberasten ari dela oinarrizko beharra den

etxebizitzaren kontura: lurren jabeak, eraikuntzako enpresak, agentziak.... Beste maila batean bada ere, administrazioak berak ere etekinak ateratzen ditu, batik bat zergen bidez. Gero, bildutako dirua,



Hemen eraikiko dituzte ezkerreko argazkian agertzen diren etxeak.

ile-apaindegia

*Maxi*

**Solarium**

ETXEZARRETA, 9  
TEL: 943 86 10 21



**MENDI - ONDO C.B.**

ELEKTRIZITATEA

Urola Plaza, 21

Tel. 943860074 - 943861569



**METRO**  
taberna

ogitartekoak  
pintxoak

Upela plaza, 7  
tel: 943 862620



**"Muagi"**

- ERREHABILITAZIOA
- KIROL MEDIKUNTZA
- FISIOTERAPIA

Aita Mari 3.blokea  
Tel. 943 86 16 91

RPS: 034/97







Merkatu libreko etheen prezioa etengabe igotzen ari da.

ordea, ez badu etxebizitzaren arazoa konpontzeko erabiltzen....

Etxebizitza baten jabe dena ere, negozioan sartzen da. Ez du lurren jabeek eta eraikuntza enpresek adinako dirutzarik irabaziko, baina bere etekina lortzera jotzen du. Adibidez, batek bere etxea saltzen du gero berria erosteko. Eta saldu ez du oso merke saltzen.

Lehen aipatutako alokairuzko etxeena ere ez da txantxetakoa. Kasu honetan ere, etxea duenak ederki ateratzen dio probetxua, batez ere uda partean.

Garbi dago, beraz, denok murgildu garelako negozioko honetan, eta denok garelako errudun, nahiz eta maila berean ez izan.

Migel Aperribai, Batasunako zinego-

tzia eta hirigintza batzordeko kideari horrek ematen dio tripako min gehien, jendea negozio horretan murgildu dela, eta ohitu egin garelako prezio horietara. Bere ustez, kezkatzeko modukoa da hori. Izan ere, harritzeko gaitasuna galduta, erantzuteko tresnarik gabe gelditzen gara. Esaldi honekin laburbiltzen du egoera: "Barruan daukagun amorrazioa ez dugu kanpora ateratzen; moldatu egiten gara, edo gurasoekin 30 urte arte bizitzen, edo hipoteken bidez, edo kredituen bitartez."

"Barruan daukagun amorrazioa ez dugu kanpora ateratzen; moldatu egiten gara, edo gurasoekin 30 urte arte bizitzen, edo hipoteken bidez, edo kredituen bitartez."

Konponbideei buruz galdetuta, berak bi aipatzen ditu:

- 1) Alokairuzko etxeak egitea, eta horren ondorio bezala, jendearengan etxeak alokatzeko giroa sortzea eta bultzatzea. Bere esanetan, gainera, Zumaian ez da etxebizitza sozialik eraiki, eta hori hankasartze handia da.
- 2) Etxebizitza oinarriko beharra dela kontuan izanda, merkatutik ateratzea. Nahiz eta, gaur egungo gizarte eta sistema kapitalista honetan, aipatzen jutzen duen hori lortzea.

Lehenengo irtenbideari heldut aipatu behar dugu Udalak baduela Puntanuetan aldean etxebizitza sozialak edo alokairuzkoak egiteko asmoa. Halaxe esan zigun behintzat, Luxiano Pagaegik, Udaleko arkitektoa. Halare, hori lortzeko Eusko Jaurlaritzak eman behar du pausua, eta Udala hori lortzeko lanean ari dela kontatu zigun Pagaegik.

Hori lehenengo pausoa litzateke. Bigarrena, Aperribai dioen bezala, jendearengan alokairuzko etxeetan bizitzeko ohitura bultzatzea litzateke, gaur egun ez baitago oso zabalduta. Zergatiak? Eze-gonkortasun egoera sortzen duelako; bost urte bizi zintezke alokairuzko etxe batean, baina epea bukatuta kanpora joateko arriskua hor dago. Horregatik, jendeak ez du pauso hori eman nahi. Aperribai dio, Udalak duen asmoa

GOIKO BODEGOIA  
"Betiko Goiko"



Erribera 9 - 20750 ZUMATA • Tel. 943 861391

**NARRONDOS**  
**TABERNA**

Goizeko 5:30etatik  
astelehenetik larunbatara  
PINTXO eta OGITARTEKOAK  
TEL: 943 86 24 90

Udalak duen asmoa gauzatzeak, alokairuzko etxebizitzak eraikitzea, alegia, bultzada emango liokeela herritarrengan alokairuzko etxeekiko mesfidantza galtzeari.

gauzatzeak, alokairuzko etxebizitzak eraikitzea, alegia, bultzada emango liokeela herritarrengan alokairuzko etxeekiko mesfidantza galtzeari.

Bigarren irtenbideak ez ditu lehengoak dituen gauzatzeko aukera berak, ezta gutxiago ere. Garbi esaten du Aperi-

baik: "utopia da". Eta utopia da goraxego aipatu dugunagatik, interesak daukelako eta jende asko ederki gizentzen ari delako denon oinarrizko beharra den etxebizitzaren kontura. Baina, batek zioen bezala, utopiarik gabe ez dago bizitzerik...eta gaur egun gutxiago. ■

HARRAPA ZAK

**BATEKO LAGUNTZAK, BESTEKO TRABAK**

BABES OFIZIALEKO etxeen jabe izateko baldintza batzuk bete behar izaten dira. Besteak beste, urte jakin batean diru-sarrerara kopuru bat izan behar da. Era horretako etxeak merkatu librekoak baino merkeagoak dira, duten prezioa eztabaidatzeko modukoa izan arren. Baina etxebizitza baten jabe izateko laguntza direla ez dago ukatzerik, nahiz eta etxebizitzaren arazoa konpontzeko nahikoa ez izan.

Eragozpenak, ordea, diru-sarrera horien bueltan kokatzen dira. Gaur egun lan mundua dagoen bezala dago: kontraturik eza, soldata txikiak, aldi baterako kontratuak, lan finko gutxi...Orduan sortzen dira arazoak: zenbait kasutan, urte gutzia lanean aritu arren, edo ez zara diru-sarrera horietara iristen, edo kontraturik gabe aritu zarenez, ezin duzu egiaztatu diru-sarrera hori.

Bateko laguntza dena, besteko eragozpena da. Bakoitzak bere interesak bakarrik zaintzen dituen gizarte kapitalistaren ondorioetako bat da. Lotsagarria!!

**LEIZE**  
taberna

Juan Belmonte, 6



Basadi Auzategia, 15 Tel. 943 14 34 84 ZUMAIA

amaiako plaza, 2  
Tel. 943 143278

**Maitte**  
ileapaindegia

**ekin** IZALAZIO ELEKTRIKOAK  
elektrizitatea, s.l. TELEKOMUNIKAZIOAK

Erribera kalea 18 Behe TH/fax:943 143097  
20.750 Zumaia ekinsl@ekinsl.com

Istalatzaile/banatzaile ofiziala

CANAL+ VIA Televés Instalador Oficial

SATELITE CANAL DIGITAL

Movistar Movilife

**ert** informatika

TRESNA DIGITALAK  
INTERNET  
SCANNER

Eusebio Gurrutxaga, 6  
Tel. 943 14 33 95

**Data**  
COMPUTER

**TXINGURRI**  
Koop. Elk.

ESTAZIO Kalea, 25 20.750 ZUMAIA  
GIPUZKOA Kalea, 33 C 3ª 20.900 ZARAUZ  
(GIPUZKOA)  
Tel. (943) 26 07 78 - (943) 14 09 40

Jardinen diseinu  
...mantenimendua  
Nekazaritza zerbitzuak  
Koral zelaien mantenimendua  
Txostenak...  
analkularitza teknikoak.  
Batorazioak

Nekazaritza Injeneru Teknikoak

**ALTZARIAK  
OSTOLAZA  
AROTEGIA**

Mota guztietako altzariak eta arotzegi lanak

Julio Beobide, 1  
TEL: 943 861325

**OPTIKA ZUMAIA**

Txomin Agirre kaia, 6  
Tel./Faxa: 943-143057  
ZUMAIA

# Injenieritza genetikoa

Genetika

**I**NJENIERITZA GENETIKOA, laboratorio teknika izatetik, interes komertzial haundia duen industria izatera pasa da azken urteotan. Elikaduran aurkitu diote interesik haundiena, eta zehazkiago nekazaritzan. Zertan datza baina teknika honeki? Izaki bizidun ( birus, bakteria, barazki, animalia edota gizaki) baten gen bat edo batzuk aislatu eta beste izaki baten karga genetikoan sartzean; horrela artifizialki eratutako izaki bizidunak lortuz ( OMG edo GMOak). Barzaki eta landare hazien kasuan, multzional gutxi batzuek ( Monsanto, Novartis, Dupont ) patentatu egin dituzte beraiek sortutako hazi artifizialak ( soja gen eraldatzen dute, artua eskorpioi geneez, gizakien geneekin arroza edo tomatea...). Hazi hauekin eginiko landaketak plagizida ezberdinen aurrean gogorragoak egin dituzte, adibidez. Honen ondorioz, plagizida toxiko hauen erabilera haunditu egin da, eta plagiziden munduko salmenten % 60 enpresa berdinen esku dagoela ere kontuan hartzekoa da.



Izaga Garcia  
Dietista

tzak gaixoarazi dituzte. Orain irtenbidetzat jartzen duten teknika honek arazo hauek areagotuko ditu eta arrisku berriak ekar ditzake epe motz eta luzean: ezezagunak dira oraindik OMG hauek gure osasunarentzat ekar ditzaketen ondorioak, alanola alergiak, antibiotikoen aurrean erresistentziak haundituko dira...Bestalde, aipatzekoa da elikadura mundiala multinazioanl gutxi batzuen esku geratuko dela.

Gaur egun genetikoki gehien eraldatzen diren haziak soja eta artua dira. Duela gutxi Alemanian eginiko ikerketa batean gure supermerkatuetan soja bere osagarrien artean dituzten elikagaiak 25.000 inguru direla argitaratu zen, hortik atera daitekeen ondorioa argia da: egunero ahoratzen dugunaren portzentaje handi bat genetikoki eraldatuta dago. Kontsumitzaileen presioa dela eta, gaur egun beraien elikagaiak lortzeko OMGak erabiltzen dituzten enpresen listak argitaratu dira. Hauen artean, Consumer-Eroski produktuak, Hipercor produktuak, Dia, Alcampo, koipe, Artua, Nestlé, Maggi, Stralux, Gallina Blanca, Knor, Schweppes, Panrico, Bimbo, La Bella Easo, Pescanova, Artiach, Cuetara, Fontaneda, Crces, Gerblé-Novartis... Ikusten denez, marka haundiek, "betiko konfidantzazkoak", gure eta ingurumenaren osasuna jokoan jartzen dute.

Lista osoak eta transgenikoei buruzko informazio zabalagoa [www.greenpeace.es](http://www.greenpeace.es) orrian aurki daitezke. Informazioa guztioan eskubidea da, eta hortik aurrera norberak planteatu beza zer egiten ari den norbere eta ingurumenaren osasunarekin. Baina gogoratu azken hitza beti kontsumitzaileek dugula, eta gure esku dugula aukera.

Nikol  Enea

**TABERNA**

Amaiako plaza

**OSTOLAZA**

BURDINDEGIA


Aita Mari auzategia, 10 behea  
tel: 943 86 16 66  
e-mail: [denda@ostolaza.com](mailto:denda@ostolaza.com)  
[www.ostolaza.com](http://www.ostolaza.com)

# Lupi-pastela

5

EDO 6 PERTSONENTZAKO osagaiak:

- kilo erdi lupi
- litro laurden nata
- litro laurden tomate-saltsa
- 8 arrautza
- 3 perejil hosto
- tipula
- gurina
- ogi arraiatua
- gatza
- piper txuria



Beñat Fernandez  
de Arroyabe  
Sukaldaria

Honela egin behar da: Ontzi batean lupia eta 3 perejil hostoak egosten ipini. Egosi ondoren, arraina hozten utzi, hezurak eta azala kendu eta pus-keta txikitan zatitu.

Beste ontzi batean, arrautzak zuritu ondoren tomatea eta nata botako ditugu. Nahastu ondoren, lupiaren haragia bota eta gatza eta piper txuria gehituko diogu.

Hori dena aurretik gurinarekin eta ogi arraiatuarekin igurtzitako molde errektangular batean ipini, eta labean eduki bainu-marian 45 minutuan.

Eginda dagoen edo ez jakiteko, orratz bat pastean sartu, eta garbia ateratzen bada, eginda dagoen seinale. Moldetik atera, eta hotza edo beroa jan daiteke, mahonesa saltsarekin.

On egin!!



# Eskola kontuak

G

AUR EGUN DENOK dakigu non dagoen Zumaian "monjen eskola". Baina baleike gazteenek lehen non zegoen ez jakitea. Hara ze kontaktatu zigun Arantxa Manterola zumaiairrak sasoi bateko eskolako kontuen berri emateko eskatu genionean:

—Zer'tzan, monjan eskola, ez?

—Bai, bai, monja zian, monjak.

—Nun? Uain daon lekuan?

—Ez, zean, Goiko Plazan. Orduan Goiko Plazan' tzeon kolejixua, Goiko Plazan' tzeon, da Goiko Plaza jute giñan.

—Ta garai artan neskak jute al'tzian eskola, o mutillak bakarrikan?

—Bueno, orduan aparte izaten'tzan, neskak neskakin. Ta monja-kin etzian mutillak ibiltzen; edade batearte, mutikoxkorak bakarrik, txikixak, pargulituak bakarrikan. Geo, zeara, Merzedaxueta o, herriko eskola o pasatzen'tzian behin edade bat ezkeo. Orduan neskak neskakin bakarrikan.

Beste batzuk ibiltzen'tzian, herriko eskola esate giñun, eskola publikua ezango zan, herriko eskola esate giñun. Paol aldian'tzeon, ta beste batzuek hara. Maxuak, maxuak zian, maxuak izaten'tzian. Mutillak horrela, batzuek maxueta ta beste batzuek Merzedaxueta. Ta neskak berriz, ba... herriko eskola're bazeon, maestrakin, Kalle Marin eoten'tzian herriko eskola. Han'e ibiltzen'tzian neska batzuek, baiña gu kolejixuan beti ibiltze giñan, monjetan. Ta geo monjetan ezaten'tzian ba batzuek pagoko, paatzen'tzuen eskola, ta beste batzuek debaldekuan. Paokua beti igual geixo, kategori geixo ibiltzen'tzuen, uniforme elegantio ta elegantio izaten'tzian haxe.

Ta geo internak, kanpoko neskak eoten'tzian internauak, Ondarrutarrak eta... Zumaira etortzen'tzian interna, bai...inportante xamarra zan kolejixua zean, Zumaiko Maria y Jose, kanpotikan ere bai etortzen tzian da, bai, internak, hamen eoten'tzian.

*Ze gauza ikas daitezkeen helduen mingai-netatik tira ezkeru! Honelako mila kontu dauzkagu oraindik ere herriko bazterretan, eta horiek plazaratzen saiatuko gara txoko honetan.*



Ibon  
Manterola  
Hizkuntzalaria



Zoruen kutxilaketa eta barnizaketa  
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12

Tel. 943 861412



Ricardo J. Azcue Yeregui

Abokatua • Aseguruak  
Finka Administrazaillea

txomin aguirre 4. behea  
20.750 zumaia (gipuzkoa)  
E-mail: rjazcue@euskalnet.net

Tel. 943 862651  
Fax 943 862748



\* Etxeak eta dendak  
\* Enpresa eta auzo lanak  
\* Europa garbiketa eta tintaketa

Basadi,3-A  
Tel. 943 861670

Zumaian gazte gehien gehienak euskeraz dakiye, baina gero kalia erdiyak-edo ez'tue euskeraz iten...

# Ze iruitzen zazu?



**Nekane Aizpurua**  
Ba nik uste jakin igual baietz, baina hitzeiten duenak ez diala ehuneko berrogeita hamarra, gutxiyo dala.



**Iñigo Kortá**  
Iritu? Gaixki. Jakinda, ez hitzeitia ba, nahiko trixtia, ez? Ta batez ere hori, ba, gehiengo batek dakila ta ulertu re ba gehiengo batek ite'ula.



**Peio Etxabe**  
Oso trixtia dala, geure kulpa dala, geu gaittuk okerrenak eta etzakau ohituraik. Erdera hain sartuta zaukau barrura, jakin arren errazo ite ziuk uste'iat nik erdera saltatzia. Ahaleñak in bihar ditteula geuk euskera indartzen hasteko.



**Sorkunde Barredo eta Estibalitz Esteibar**  
Bai, gutxi hitzeiten da. Horrela jarraitzen badeu ba galdu ingo deu ta pena bat da. Baina askotan gu gea okerrenak.



**Jesus Arrizabalaga**  
Ba bai, egi haundixa dala. Porke edade batetik gora guk, gehienak, euskeraz ite'iu. Baina edade batetikan kampoakuak...ta egiya esan lotsagarriya dana dek ezkonberriyak eta ume bat eta bi dazken matrimoniyuak iten duela bakurrai ta umiai euskeraz ta alkarren artian erderaz. Hori in bihar die pentsatu beaiek umiak geu ze ingo duen.

**STIAOM**  
taberna

ORTEGA Y GASSET, 3

943 860151



**SIWA**  
Belardenda

Basadi 9  
943 143404

- Elikadura, belarnak, buztinak, tratamenduak
- Kontsulta naturista
- Osteopatia, masajea
- Dietak
- Estetizista
- Solariuma
- Tai-chi, masaje eta Reiki ikastaroak



INMOBILIARIA 943 143361

BIDAIK 943 143323

Ortega y gasset, 1

# Zumaia, herri euskalduna? Bai, baina...

**Z**UMAIA EUSKAL Herrian dago, bai, euskaldunak gara eta euskaraz hitz egiten dugula ohartarazten duen kartela ere badago herrira sartzerakoan, bai; inkesta baterako telefonoz baten batek euskaraz egiten dugun galdetuz gero baietz erantzuten dugu, horixe baietz...baina gure eguneroko jardunean euskaldunak al gara, euskaraz egiten al dugu zumaiaarrok?

Honelako eta antzeko beste galdera batzuen erantzunak Siadeco Ikerketa Elkartearen "Zumaiaiko Azterketa Soziolinguistikoa" lanean aurki ditzakegu. Apirilean aurkeztu zen azterketa honetan ez da euskararen erabilera, gaitasuna eta jarrera bakarrik neurtzen, herrian euskara normaltze aldera Udalak eman beharreko zenbait pausu (lan ardatzak) ere proposatzen dira.

Datuek diote orokorrean euskaldunak izan, bagarela, gero eta gehiago gara euskaraz dakigunak eta euskara maite ere asko maite dugula. Baina ez dugu erabilten! Horixe gure koxka eta arazoa.


Askoren ustez euskaldunaren hipokresia da arazo honen iturria, beste batzuek esaten dute betiko ohitura kontua dela euskaraz jakin baina erdaraz egite hori; eta azkenik, beste askorentzat arazoa euskara bera da. Hau da, euskarak ez omen du balio lagunarterako, parrandarako etab.

Ikusten duzue, askotarako ematen duen gaia dugu hau. Iritzi ezberdin asko


dago, euskararen erabileraren arazoa konpontzeko irtenbide ezberdinak proposa daitezke, eta batez ere, gizarte osoa harrapatzen duen kontua da euskararena. Eta Siadeco Elkartearen emaitzei begiratuta, garbi dago gure herria bete-bete harrapatzen duela.

Gauzak horrela, norberak jakingo du gai honi nondik eta nola begiratu. Gu behintzat saiatuko gara datozen hilabeteetan hari honi ahalik eta gehien eta txukunen tiratzen. Beraz, badakizue, gure atea irekita daukazue, guzti guztion ekarpenak eta iritziak onak dira eta euskara indartze aldera.

Interesatzen al zaizu euskara?




Zuk zer nahi zenuke? Zumaian euskara gaur hitz egiten dena baino...




Iturria: SIADECO, 2000

Zumaian, herritar euskaldunen bilakaera (2 urtetik gorakoak) (1986-2000)



Iturria: EUSTAT 1986, 91, 96. SIADECO, 2000. SIADECOk landua.

Zumaiko biztanleria euskalduna eta adin bereko solaskideen arteko kale erabilera indizea



Iturria: SIADECO, 2000

*Zumaia*  
Taberna

**TOMAS  
TABERNA**

- APARTAMENTUAK -

- menuak
- plater konbinatuak
- pintxoak eta ogitartekoak

E. Gurrutxaga plaza

943 86 19 16

**AROTZEGIA**

**Urola 2000, s.l.**

- \*Eraikuntzen akabera eta dekorazioa
- \*Baserrien zaharberitzea
- \*Enbarkazio konponketa
- \*Ate, zokalo tarima eta pertsianak
- \*Armairu enpotratuen aurrealdea
- \*Arotzegi metalikoa

Trenbide kalea, 1

Tel. 943143505

Erribera Kalea 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa) Tel. 943 86 19 73

# Aurten ere punta-puntan

TRAINERU DENBORALDIA hasi da, eta zumaiaarak, joan den urtean bezala, onenekin izango dira.

Denboraldi honetarako aldaketa ugari egin dituzte, iazko zortzi arraunlarik utzitako hutsuneak gazte mailatik igotako beste zortzirekin bete dituztelako. Guztira hemeretzi dira, Goiko presidentearen ustez, kopuru polita.

Baina aldaketa horiekin traineruaren maila ez da asko jaitsi, ezta gutxiagorik ere. Hori ederki erakutsi zuten uztaileko lehenengo asteburuan, Euskal Ligarako sailkatze estropadetan aurreneko hamabiren artean sartuta A Ligako zortzi estropadetan eta B Ligako lautan aritzeko txartela lortu zutelako. Horixe zen helburua, arraunlarien, presidentearen eta Luxia entrenatzailearen ustez.

**Behin helburua beteta, zer? Noraino heldu daiteke taldea?**

Iñaki Unanue eta Felix Aizpurua arraunlarien esanetan, oraindik goiza da taldearen benetakoa maila zein den jakiteko. Denbora behar dutela esan ziguten. Goiko ere iritzi berekoa da, gazte asko dagoenez, pazientzia behar dela uste duelako. Luxiak ere arraunlariek eta presidentek bezala pentsatzen du. Hori bai, denak bat datoz, ahal den posturik onena lortzen saiatu behar dutela.

**Zaleei eskaera**

Joan den urtean jende mordoia izan zuten atzetik arraunlariek, denak niki gorria jantzita, batez ere Kontxan. Aurten ere jarrera bera izateko eskatzen diete bai arraunlariek, baita presidentek ere. Hori bai, Iñaki Unanuek egia borobila esan zigun, "dena ez da Kontxa, urtean zehar beste estropada asko ere izaten dira".

Beraz, badakizue, niki gorriari hautsa kendu, jantzi eta arraunlariak animatu, baina ez Kontxan bakarrik, beste estropadetan ere bai. Arraunlariek asko estimatzen dute hori.



**Zigorra**

Gogoan izango duzue trainerilletako Gipuzkoako txapelketan gertatu zena. Epaileak estropadari hasiera eman zion zumaiaarak zain egoteko eskatzen ari ziren bitartean. Erabaki hori ikusita, gure herriko arraunlariak estropada eremuaren erdian jarri ziren protesta egiteko. Zumaiaarak eremuaren erdi-erdian zeudenez, ezin izan zuten estropada jokatu. Hori dela eta, agintariek eta beste talde batzuek zigor gogorra ezartzeko eskatu zuten. Eta kasu egin dietela dirudi. Izan ere, orain egun batzuk jakin dute zigorra zein izango den. Eta ez da txantxetako. Arraunlariei urtebeteko zigorra ezarri diete, Goikori bi hilabetekoa eta hori gutxi balitz, 3.000 euroko isuna ordaindu behar. Goiko, halere, nahiko lasai dago. Traineru denboraldia osorik egiteko moduan izango direla esan zigun, errekurtsioak ipinita denborak aurrera egingo duelako. Gainera, abokatuek esan diotenaren arabera, aukera asko dute azkenean aldeko epaia izateko.

Hau dena ikusita, galdera bat sortu zaigu: zenbateko zigorra ipini diote epaile jaunari?




Mota guztietako  
altzariak

Xanti Osa

Amala plaza, 7  
tailerra: 943 860914  
denda: 943 862385

B. Etxegarai 2, behea  
943 86 27 14



GAZTEEN EUROPA

**ZALLA**  
Taberna - Erreteria

\* plater konbinatuak  
\* otartekoak  
\* oilasko erreak

San Pedro, 4

Tel. 943 862387

# Ameriketara joan nintzen...

**OHIKOA DEN** elkarrizketa egin beharrean, Gotzoni berari eskatu diogu Estatu Batuetako esperientzia kontatzeko. Hauxe idatzi digu:

Azken urteetan Zumaiaiko pilotari asko profesioaletan jolasten ari dira eta horietako asko goi-mailan gainera. Gehienak Estatu Batuetan daude, batzuk Euskal Herrian eta beste batzuek negua Ameriketara eta uda hemen pasatzen dute.


Nik duela ia 6 urte debutatu nuen eta Ameriketako pare bat txapelketa kenduta, orain arte Euskal Herrian bakarrik jolastu dut. Aurten, ordea, Ameriketara joatea erabaki dut, Daniara, Miamitik oso gertu dagoen herri polit batera. Esperientzi berri

bat bizi eta ea zer moduz moldatzen nintzen probatu nahi nuen, ia pilotari gehienenen helburua baita. 5 hilabete egin ditut bertan, eta egia esan oso esperientzi positiboa izan da. Hasieran aldaketa askotara moldatu behar izan nuen, alde batetik hizkuntza, bestetik etxetik kanpora bizitzea, eta baita hango frontoietan jolasten den erara moldatzea ere.

Ameriketako frontoietan ez dira hemen bezala partidoak jolasten, kinielak baizik. Kiniela batean 8 bikotek hartzen dute parte eta 7 tanto egiten duen aurrenengo bikoteak irabazten du kiniela. Guk astean 8 funtzio edukitzen genituen eta funtzio bakoitzean 5 edo 6 kiniela jolasten genituen. Egia esan, kiniela bat jolastea ez da oso neketsua baina astean zehar 45 bat kiniela jolasten ditugu eta iganderako nekea asko igartzen da. Astelehena da gure jai egun bakarra eta igandeak aprobetxatzen ditugu pilotarien artean bazkariak eta parrandaxoak egiteko.

Hizkuntza ere beste eragozpen bat da. Ingeles aldetik ez nengoen oso jarria, eta ez nintzen ausartzen erosketak egitera bakarrik joaten, baina denborarekin oinarritzko hitzak ikasi nituen eta nola-hala nire beharretara moldatu nintzen.

Aldaketa horiek direla eta pixkat gogorra egiten da hasieran, baina denbora pasa ahala gauzak ikasten joaten zara eta moldatu egiten zara. Gainera han jolasten ari diren pilo-



tari gehienak hemengoak dira eta behar dugunean behintzat gure artean esku bat botatzen diogu elkarri. Generalki giro ona daukagu pilotarien artean, eta hau ere laguntza handia da egunero egon behar baitugu elkarrekin.

Nik bost hilabete exkax egin ditut han eta asko bota dut faltan Zumaia; pentsa urte osoa han pasatzen dutenak. San Telmoak ere ez zaizkigu pasatu nahiz eta mila kilometrotara egon, zazpi zumaiair elkartu ginen han gure bihotzeko San Telmoak ospatzeko painelu eta guzti.

Azken finean esperientzi oso ona izan da, eta hurrengo urtean ere bueltatzeko asmoa dut. Udako denboraldia hemen bukatuko dut eta azaroan dena ondo joaten bada haruntz bueltatuko naiz.



Zerbitzu Ofiziala

**ZUMAIA MOTOR**

Santixo auzoa, 22  
Tel./Faxa: 943 143143

**ILEAPAINDEGIA**

**IRUITZ**



San Telmo, 12  
Tel. 943 860760

**ITSASKI**

**SUPERMERKATUA**

Urumea kalea z/g  
Tel. 943 143058



# Bedeinkatu gabeko uretan...

GARAI BATEKO ohitura edo usadioak oroitu nahi ditugun txoko honetan, ale bakoitza kaleratzen deneko hilabetearen inguruan jardun nahi dugu. Urteetan atzera egin, eta hilabete horren bueltan aurki ditzakegun jarduera desberdinak argitaratu, interesgarri, edo gutxienik kurioso suertatuko direlakoan.

Uztailarekin batera ekin diogunez Baleikeren bigarren kimu honi, uztailekoa behar du izan aipatuko dugun ohiturak ere, eta hala da. Karmengo amaren egunaz jardungo dugu.

Esan beharrik ere ez dago, eta herri honek urteetan zehar erroturik izan duen sinesmena medio, kristautasunak, eta bereziki elizak, eragin

diarekiko menpekotasuna, ezen herri haren ospakizunak honen eraginarene onorio baitziren, neguko eta udako solstizioaren ospakizunak kasu. Eta elizak, jendeagana hurbilduz joan asmoz, bere egin zituen jai hauek. Neguko solstizioan Jesusen jaiotza ospatu da ordudanik, uda-koan San Joan-en eguna, ihauterietan garizuma...azken finean, antzianako usadio zaharrak sinesmen berriarekin uztartzea izan da helburua.

Horregatik, askotan zail da jakiten ohitura baten jatorri zehatza zein den. Ospakizunaren egungo arrazoiak jakin ditzakegu, baina zer dela eta ospatzen da egun zehatz hau garai honetan? Ziurrenik aurretiagoko azalpenen bat izango du.



nabaria izan duela bere ohituretan. Baina kristautasuna izan al da zehazki ohitura hauek eragin dituen? Ezezkoan naiz. Gizakiaren historia orokorrari begiratzen badiogu, iragan hurbilari dagokio kristau sinesmena, eta gauza berri bat txertatu nahi den leku orotan bezela, eraginkorrago suertatzen da pixkanaka, eta lehen zegoenaren baitan integratuz joatea. Horixe egin izan du kristautasunak. Herriagan bizirik antzinatek zetozen ohitura pagano, eta erritoak moldatu, eta hala joan zen sinesmen berria txertatzen.

Naturan oinarritua zen iraganeko sinesmena, eta halakoa zen iza-

Uztailaren 16-an ospatzen den Karmengo amaren egunak ere izango du halakorik, baina gugana ordea, kristautasunaren besotatik igarotakoa iritsi da. Hala, eta Karmengoa itsasoko ama izaki, egun honetan itsasoa bedeinkatzen da gaur egun ere, itsasoarekiko errespetu seinaletan.

Orain urte batzuk aldiz, aiton-amonek "gu gaztiak giñanian" moduan aipatzen dituzten garaietan, egun honetako ekintzak ez ziren hontara mugatzen. Izan ere, eta gaur egun ere askok gogoratuko duten moduan, Karmengo egunez itsasoa bedeinkatu arte, ez ziren itsasoan bainatzen.



*ilarzi*

Alai auzategia, 2  
Tel. 943 14 33 24

**Itzurun**  
ATEAK

- Material guztietako leihoak:
- PVC, poliuretano, aluminio eta egurrezkoak
- Armairu enpotratuak
- Tarima, ate eta era guztietako pertsianak
- Lanen zuzendaritza

Bezeroak gustura uztea da gure helburua

Itzurun zuhaitzbidea, 2 943861565 - 943143446

Ikus dezakegu kasu honetan ere, erritoak naturaren aztarna nabariak dituela. Orduko bizimodua askoz ere naturalagoa, izadiarekiko lotura handiagokoa zen, eta ondorioz, gaur baino beldur gehiago zitzaion, eragin handiagoa zuen pertsonengan, eta ondorioz, gehiago errespetatzen zen. Arrazoi horregatik ospakizun hauek ere errotuago zeuden herrian.

Karmen egunera arte ez bainatzeaz gain, monja xarretan salgai jartzen zituzten eskapularioak zintzilikatzeko ohitura zuen jendeak, itsasotik babestu asmoz. Gaur egun ere bada ohitura honekin jarraitzen duenik.

San Telmo eta Karmen egunez bedeinkatzen da Zumaian itsasoa, itsaso eta arrantzaleen zaindari diren aldetik. Baina ez litzateke harritzekoa izango, ekintza hauen munean, beste nolabaiteko arrazoiren bat zela eta burutzen zen ospakizunen baten aztarnak topatzea, batek jakin.

Garaiak aldatuz doaz, beraiekin ohitura eta sinesmenak ere, eta gaur egun ziur dakigun bakarra, Karmenak baino lehen jendea bainatu egiten dela da. Hala eta guztiz, hilaren 16-an itsasoa bedeinkatuko da aurren ere, itsasoari begirunea adierazi asmoz.

Karmengo amaren egunaren inguruan berri gehiago izate aldera, Don Ramon M<sup>a</sup> Olaizola apaiz zumaiarrarengana jo dugu, jarraian azaltzen dizkizuegularik kristautasunaren ikuspuntutik hel arazi dizkigun inpresioak:

-Zumaiaren eta itsasoaren arteko erlazioaz galdetuta:

Gure Kantauri itsaso ertz honek, eziñ ukatu, berekin dituala aparte-ko edertasun, gozotasun eta aldiz, baita ere, atzekabe minbera. Tamalez, zumaiarrak ondo dakigu txaso aserrearen ondoan, negar eta otoitz egiten...

Eta zer, ala ere, gure Zumaiako erri paregabea, eta Kantauri itxaso maitea, alkar besarkatuaz eta agurtuaz, bizi dira...

-Eta zer diozu, San Telmo jai egunez, eta Baita Karmengo Amaren jai egunean, apaizak itsasoa bedeinkatze hortaz?

Bedeinkatzea, otoitz berezi bat egitea da. Eleiza Amak asko estimatzen duana; eta orretarako dauka "Otoitz bedeinkaziyoen ritual liburua", milla izkuntzetara itzuliya; eta noski, baita ere gure izkuntzara.

Esan degu bedeinkatzea dala otoitz berezi bat egitea: eskari otoitza, beraz. Gogoratu Jesus gure Jaunak, nola esaten digun: "otoitz egiñ eskatuaz eta iritxiko dezute". Eta adibidez, orixe egiten degu uztallaren 16an, Karmengo Ama, ibxaztarren zerutar zaindariaren, egunez; bera bitartez, Jaungoiko Aitari erregutu itxasoa izan dezagula gustagarriya, laguntzallea, on emankorra...

Urtero jeitzen gera monja xarren conbentutik alampraraño prosiyoan, Andre Mariaren irudi polita mariñelen bizkar gañean, umetxo-aingeruak, inguruan, loreak eskeñiaz...

Bai, antziñako oitura ederra biyotzez gaurkotuta, danok pozik, pakean eta alaitzu...

Ez ote gaude ba, beñere ez bezela, bearrean, alkarrekiñ artu-eman gozoetan izateko...!

Bedeinkaziyoak ugaritu behar ditugu gure artean...eta madarikaziyoak urritu...

Orixeren olerkia ontzat artu eta txalotu dezagun:

"Atozkida, goi amaz,  
egizu nerekiñ lan  
erri baten amaza  
mamitu dezadan.

Geroak esan beza:  
herri bat izantzan...  
edo ta ats eman diyogun,  
ontan iraun dezan!"

(Don Ramonek idatzi bezalaxe argitaratu dira erantzunak).

dekorazioa

ALBERDI

696 726188  
943 143261

• Eskaiola  
• Pladur-a

Alberdi

Gizonetzkoen moda



Erribera kalea, 6  
Tel. 861155

INMOBILIARIA



Amaia

Julio Beobide, 3 behea 943 86 23 01

islapandegia

IZETA

Urumea, 6 Tel. 943 862083

INPERNUPE  
ELKARTEA



Erribera kalea Tel. 943 861523



taberna  
JUSTA

eguneroko bazkariak

Erribera kalea, 20



# Bergara, Jam Aretoa U-4. Soulfly

"PRIMITIVE" DISKOAREN arrakastaren ostean, Max Cavalerak zuzenduriko taldea "3" disko berri batekin etorri zaigu eta bera aurkezteko uztailearen 4an Bergarako Jam aretoan izan ziren. Dirudien gustuko dute Bergarako aretoa, hirugarren aldiz etorri baitira bertara disko ezberdinak aurkeztu asmoz, eta oraingo honetan ere, jende ugari bildu zuten.

Gogoratu Roy Mayorga baterajole ohia izan zela perkusioaren arduradun taldera bueltatu berri denean, D Rapp baxuaz, Mike Dolling kitarrak eta nola ez, Max Cavaleira izarrerekin batera laurak eszenatokiko sua pizten. Nahikoa izan zen Max eszenatokian agertzea ikusle guztiak oiherka eta adrenalinaz gainezka jartzeko. Disko berriko abestiak jo bazituzten ere, besteak beste Brasil, Call to Arms eta Zumbi, doinu ezagunagoak ere izan genituen entzungai jendearen zoramenerako: Tribe, Back To The Primitive (entzule batek "Back to the Primitive" abestian lagun bati hotsegin zion segapotoz enbidia eman asmotan edo), Umbabarauma, Fire, eta Max Sepultura taldeko kide zeneko Chaos A.D. eta Roots Bloody Roots abesti ezagunak. Ikuskizuna bukatzeko, berriz, Eye For An Eye, Soulfly taldearen lehen lana irekitzen duen abestia.

Horrenbestekoa zen sorturiko giroa Max Cavalerak ia kantuoro ur tragoxka hartu eta bere burua busti ostean, jendea blai egiten zuela. Seguru batek baino gehiagok eskertuko zutela, aurrealdean zegoen jendeak ez baitzuen "dantzaldiz dantzaldi" atsedetik hartzeko astirik eta izerdia zen guztien artean nagusi.



Zurrumurrutik ere izan zen kontzertuari zegokionez: hirugarren diskoan 9-11-01 izenburua daraman abesti bat bildu dute Torre Bikien gertakariak gogoratu asmoz. Abesti honetan gertakariak izan dezakeen edukin politikoa alde batera utzita, biktimak gogorarazten dituzte eta minutu bateko isilune bat egiten dute. Ikusle goaren aldetik desadostasunik egon zitekeen arren, ez genuen halakorik bizitzeko aukerarik izan ez baitzuten abestia jo.

Laburbiltzeko, Jam aretoa jende beteta, emankizuna espero baino motzagoa baina indartsua eta beroa, nahiz eta aurreko kontzertua esanguratsuagoa gertatu.

## Jousilouli

Bestalde lerro bi eskaini nahi nizkioke aurrez aritu zen Jousilouli taldeari. Izan ere giro berezia sortu baitzuen talde Lezotarrak, batez ere kitarra joleak koilare moduan giltza bat, koderak, belauetakoa bat eta bere hanka-arteak estaltzeko rock errebista bateko lehen orria erortzen utzi zuenean. Abeslariaren piura ere ez zen gutxiagorako izan, eta lehen akordearekin batera igo zen eszenatokira hirurogeigarren hamarkadako alkondara urdin disdiratsu batekin. Seguru nago ikusle goaren gehien-goak taldearen berri ez zuela, baina orduerdi exkaxeko emankizunak baten-gan baino gehiagorengan harridurarik sortu zuen. Erritmo pisutsuak, eromenezko ahotsak eta soinu bitxiak scratch-ek lagundurik. Jakinarazi digutenez, Shot! estudioetan grabatu behar dute beraien bigarren lana eta urria inguruan argitaratuko omen dute Gor diskoetxearen zigilupean.

- Arrainak eta haragiak aukeran
- Eguneko menua
- Jangela klimatizatua

*Juaristi*  
JATETXEA

Basadi auzategia, 10 Tel. 943 861853

*Z*  
Zumaia Hotela

Alai Auzategia  
20750 Zumaia (Gipuzkoa)  
TEL: 943 14 34 41  
FAXA: 943 86 07 64





# Gizon bakartia

NICK HORNBYREN "Erase una vez un padre" liburuan oinarrituta dago pelikula, eta egia esan, liburu hori da Hugh Grant-ek aktoretzat duen pelikula hau ikusteko aitzakia bakarra. Zuzendarien beste pelikulak ere ez dira beste munduko gauza, "American Pie", esaterako.

Horregatik guztiagatik, filma ikusi ondorengo iritzia ona da, espero baino hobea. Konturatzen zara pelikulako mikrokosmos zoroan azaltzen diren egoerak eta pertso-

naiak jatorrizko liburuak piztutako ikusmina asetu dituztela. Hori dela eta, pelikula honek udan ezinbestekoak diren kontsumo azkarreko filmen batez bestekoa gainditzen du.

Hugh Grantek berezkoak dituen keinu urduri horiek alde batera uzten ditu film honetako protagonistaren pertsonaia eta bere izakeran barneratzeko; mutilzahar peto-petoa, kontsumista ase ezina eta emakumezale porrokatua da pertsonaia hori.

Baina zentzurik gabekoa eta patetikoa den bizimoduak izugarritzko aldaketa izango du mutiko bakarti batekin ohikoa ez den adiskidetasuna egin ondoren.

Bi pertsonaia ibiltari horien arteko konplizitateak egoera oso garratzak sorrarazten ditu, eta muntaia dinamikoak eta ondo landutako off-eko ahotsak indartu egiten dituzte egoera horiek. Gainera, aipatutako off-eko ahotsa ironiaz betetako kontrapuntu egokia da irudiekiko.

**"Un niño grande"**

**Zuzendariak:**  
Paul eta Chris Weitz

**Aktoreak:**  
Hugh Grant, Rachel Weisz, Toni Collete



"Un niño grande" filmeko fotograma.



**AUTO-ESKOLA**



- Gida baimen guztiak ateratzeko baimendua
- Praktika eta azterketak Azpeitian
- GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

**ZUMAIÁ**

Basadi, 12 behea Tel. 943 861018



Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

Zuloaga plaza, 1  
Tel. 943862309

**UZTAILAK 25- 28**  
TUI - FROMISTA - ZUMAIA  
Herrien arteko topaketa

## UZTAILAK 26

18.00etan **Haur Antzerkia** "Bihar" taldearekin "Baleak salba ditzagun" E. Gurrutxaga plazan.

18.30tan **Zesta/Eskuzko** erakustaldia.

19.30tan **Herri Kirolak**. Narrondon. Aimar, 16 urtetako harrijasotzailea, mozketa bertikala 6 metrora, Fausto aizkolaria bi semeen aurka, herrien arteko sokatira...

## UZTAILAK 27

18.30tan Tul. Fromista eta Zumaia Herrien **Ikuskizuna**, E. Gurrutxaga plazan.

Tuiko **gaita-joleak**

Fromistako **dantza-taldea**

Beheko Plaza **Abesbatza**

Bertsos Eskolako **Bertsolariak**

**Txalaparta** saioa

**Euskaldantzak**

Eta frontoi txikian **sardina jana**, **trikitilariak**,...

23.30tan M-NEZTEN **taldea**.

## ABUZTUAK 1-12

Zumaiaiko Nazioarteko Musikaldia

## ABUZTUAK 1

19.00etan Foronda Kultur Etxean **inaugurazioa**.

22.00etan JON PLAZAOLA **tenorea** Maria eta Jose Antzokian.

## ABUZTUAK 4

22.00etan SAN PEDRO ABESBATZA eta UDAL BANDAREN **saio berezia** Maria eta Jose Antzokian.

## ABUZTUAK 6

22.00etan IRAKASLEEN KONTZERTUA Joxe Mari Kortaren oroipenean, San Pedro Parrokian.

## ABUZTUAK 7

22.00etan LUUR METAL metalezko boskotearen **kontzertua** Maria eta Jose Antzokian.

## ABUZTUAK 8

20.00etan IRASLE ETA IKASLEEN LABORATEGIA San Pedro Parrokian.

## ABUZTUAK 12

22.00 Musikaldiko Orkestraren **Kontzertua**, parrokian.

Eta ikasleekin zenbait emanaldi berezi antolatuko dira egun horietan zehar gure kaleetan.

## ERAKUSKETAK

### UZTAILAK 19 - ABUZTUAK 4

Eva Francoren **argazki** erakusketa "PEOPLE". Alondegi Zaharrea.

### UZTAILAK 23 - ABUZTUAK 15

XIV ARGAZKI LEHIAKETAKO LANAK, Udal Turismo Bulego berria.

### ABUZTUAK 9 - 25

ANDER HORMAZURIren **pintura** lanak Alondegi Zaharrea.

### ABUZTUAK 28 - IRAILAK 8

IV. Zumaiaiko Kale **Pintura** Lehia ketako lanak, Alondegi Zaharrea.

### IRAILAK 6-15

"ZUBIETA XXI", Alondegi Zaharrea.

## PROGRAMAZIOA

### UZTAILAK 30

23.00etan IZOTZ **taldea** E.Gurrutxaga plazan.

### UZTAILAK 31

19.00etan "EUSKAL HERRIKO ITSASOA" **haur antzerkia** E.Gurrutxaga plazan.

23.00etan "ARANTZA ETA PANTXO BOSKOTEA" E.Gurrutxaga plazan.

### ABUZTUAK 3

9.30etan XXIV ASTE NAGUSI TXIRINDULARI FROGA "Joxe Mari Korta Memoriale". Junior maila.

10etatik 13.00etara XVIII "ARRAIN TXIKI" **lehiaketa**.

BERBENA BEREZIA "TARANTELA" **taldearekin**.

## ABUZTUAK 6

18.00etan REAL SOCIEDAD - EIBAR **futbol** partida

## ABUZTUAK 7

7.30etatik 12.30etara XVII. KABRA ETA DONTZEILA arrantza **lehiaketa**.

## ABUZTUAK 8

EUSKAL JAI EGUNA

9.00etatik 14.00etara BASERRITAR AZOKA BEREZIA Alde Zaharreko kaleetan.

**Postuak** : barazkiak, barazki ekolojikoak, eztiak, ogia eta opilak, loreak, abarkak, gazta...

**Musika** kaleetan zehar

ANADE elkarteok antolatutako SOZIDADEEN ARTEKO MARMITAKO LEHIAKETA.

**Haurrentzat jolasak**

EBELen "Baserriko Argia" **eskulturak**. Etabar...

13.00etan BERTSOAK BALKOItik BALKOIra (Egaña eta Peñagarikano).

HERRI BAZKARIA

ERKIBE **taldeak** taloak egingo ditu.

17.00etan SAGARDO DASTAKETA

DANTZA IKUSKIZUNA

18.00etan BEASAIN - BARAKALDO **futbol** partida.

22.30tan DINASTIA ETXABE. **Pala**

**Motza**: La Calle-Aierbe // Roperor-Egia. **Eskuz**: Antxia-Ajuria // Dominguez-Oteiza.

## ABUZTUAK 10

18.00etan FUTBOLEKO UDAKO TXAPELKETAREN FINALA.

## ABUZTUAK 11

19.00etan Vilanova i la Geltru-ko "FALCONS CASTELLET", E.Gurrutxaga plazan.

## ABUZTUAK 13

DINASTIA ETXABE. **Pala motza**: Antxin-Sanchez // Pontin-Txiki. **Eskuz**: Ubera-Bengoetxea // Roteta-Argote.

## ABUZTUAK 15

IV ZUMAIAIKO KALE PINTURA LEHIAKETA.

## ABUZTUAK 18

ZUMAIAIKO XVII BANDERA. "A" ligako **estropada**.

## ABUZTUAK 19, 20 eta 21

EHUKo Uda Ikastaroen barruan Zuloagari buruzko **jardunaldiak**, Santiago Etxean.

## ABUZTUAK 19, 20, 21 eta 22

Zine forum saio bereziak

## ABUZTUAK 19

17.00etan eta 22.00tan "El señor de los Anillos".

## ABUZTUAK 20

22.00etan "El pacto de los lobos".

## ABUZTUAK 21

22.00etan "Vidocq".

## ABUZTUAK 22

22.00etan "El fantasma y el señor Muir".

## ABUZTUAK 22

BERTSO AFARIA Itzurun hondartzan (Unai Iturriaga eta Igor Elortza).

## ABUZTUAK 23, 24, 25, 27 eta 28

OIKIAKO JAIAK.

## ABUZTUAK 23

22.30etan DINASTIA ETXABE finalak.

## ABUZTUAK 24

18.00etan BOST KIROL FROGA

## ABUZTUAK 25

19.00 etan Kukubiltxo taldearen "EKIDAZU" **txotxongiloa**, E.Gurrutxaga plazan.

## ABUZTUAK 28

19.30etan PORTLAND SAN ANTONIO - BALONMANO CANTABRIA **eskubalo**i partida.

## IRAILAK 14

23.00etan EUSKADI GAZTEKO DISKO FESTA.

## IRAILAK 27, 28 eta 30

ARTADIKO JAIK.

Larunbat arratsaldetan irekita!!

# Ardantzabide Altzariak

Sukaldeak  
Egongelak  
Era guztietako logelak  
Mahaiak  
Ateak  
Leihoak

Horma armairuak  
Tarimak  
Era guztietako arotz lanak

Bigarren kalea, 4 (estazioa) 5. pabilioia  
Tel./Faxa: **943 86 25 32**

TAILERRA: Santxo auzoa40

KOSTA GAS C.B.



REPSOL

BUTANO

ZERBITZU OFIZIALA

ETXEZARRETA, 6  
ZUMAIA  
TEL. 861078

## KALEFAZIO ETA GAS INSTALAZIOAK

PRESUPUESTOAK ZURE NEURRIRA  
EGITEN DITUGU.  
ESKA EZAZU ZEUREA INOLAKO  
KONPROMEZURIK GABE

*Zatoz eta galdetu*

GAS NATURALA

BUTANO

PROPANO

